

ataria

2019-10-18
1.128. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus



Konpromisoa behar du euskarak

Gipuzkoako

Bertsolari Txapelketa
2019

Urriak

19

17:00

Andoain. Bastero Kulturguea

Iñaki Apalategi Astigarraga
Beñat Iguaran Amondarain
Unai Mendizabal Jauregi
Eñaut Martikorena Lizaso
Asier Azpiroz Iztueta
Iban Urdangarin Lardizabal

Aurkezlea: Inaxio Usarralde Arantzadi



Urriak

20

17:00

Irún. Amaia Kultur Zentroa

Agin Laburu Rezola
Haritz Mujika Lasa
Beñat Lizaso Alberdi
Maidar Arregi Markuleta
Unai Gaztelumendi Arandia
Iñigo Izagirre Urteaga

Aurkezlea: Iban Narbaiza Cevidades



Zebra-bidean

Ez luke zebra-bideak zebrairena bezalako zailtasunik eragin behar, bide zuri ote den marra beltzez edo bide beltz marra zuriz. Asfaltoaren gaineko marra zuria dira. Akaboa misterioa. Baldin eta misterioa ez balitz zebra-bideak nola gisten gaituen.

Autoz zoaz. Ez bazara mugitzen zebra-bidera arrimatzaren ari den nerabe talde horrek noiz gurutzatu zain egon beharko duzu. Eta koadrilatxoak dira. Zuk ez daukazu denborarik, jakina. Badakizu gogor eman ezean ez duzula lortuko haiek baino lehen pasatzea. Eta pasa beharra daukazu.

Toki berean, eta deskuidatuz gero egun berean, zebra-bidearen ertzean geldirik, ez du ematen datorren auto horrek mantsozko asmorik duenik. Ez dago eskubiderik. Pausoa luzatu duzu, lehentasuna nork daukan ikas dezan. Irribarrez gurutzatu duzu. Eta ez zaizu irribarrerako motiborik falta. Garaile irten zara. Bai autoz eta bai oinez. Gerta zitekeen kontrako ere.

Elkarbizitzari buruzko lezioak xumeena eta sakonena izan da zebra-bidea. Zentzuz jokatzeko ikasle bidea. Besteak ikusi eta errespetatzeko, jendetasuna praktikatzeko.



ARANTXA ITURBE
IRRATILARIA

Horregatik harritzen nau oraindik eskola-umeen mugimendua hasten den uneetan zebra-bideen erdian udaltzainak ikusteak. Prebentzioagatik izango da. Zer gerta ere. Umeek zebra-bideak arriskurik gabe gurutzatu ditzaizten. Ulertzekoa da. Ez du ezertarako balio istripua gertatu ondorengo arrangurak. Erdian jartzen dira, trafikoa gera arazten dute, eta han pasatzen dira umeak oinez, bizikletaz, patinetaz, zebra-bidea euren bidearen jarraipen naturala bihurtuz. Eta izan hala da. Baina, -eta zebra marra adina 'baina' ditu gaiak-, era berean da ulertzekoa umeek eguneroko praktikari esker jasotzea zebra-bidea ezker-eskuin begiratu beharrik gabeko pasabide segurua dela. Eta izan hala behar luke, segurua. Baina ezker-eskuin begiratu eta gero. Eta era berean, ulertu nahi duenak erraz ulertuko du helduok ez gaitelako betebeharrak hain fin portatzen autoritaterik ezean. Alegia, uniformedunak albo ematea bezalakorik ez dagoela albo egiteko.

Zeinen grisak garen jabetzeko ez dago ikerketa handirik egin beharrik. Nahikoa da egun batzuz zebra-bideari begira egotea. Autoa gidatzeko adinera iritsi gabeei mesede ederra egingo genieke zebra-bideari buruzko lezioa behar bezala irakatsita. Eskubideak eta betebeharrak pack berean etortzen direla jakinarazita. Baietz. Lehentasuna dutela. Baina lehentasuna ez dela lehentasun bakarra. Baina ederrak gaude betebeharre buruzko lezioak emateko zebra-bideko minutua ez galtzea-gatik, lehentasuna zuzitzeko ahaleginean bizi garenek.

**Ulertu nahi duenak erraz
ulertuko du helduok ez gaitelako
betebeharrak hain fin portatzen
autoritaterik ezean**

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 304346 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 - 687 4100 33 - 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 - publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esan eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Albizsketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarra, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Ibai Luque Eizagirre



25 urte barre, ikuskizun batean

04

Leidor aretoak 'Lo mejor de Yllana' umore ikuskizuna hartuko du, gaur; konpainiaren ibilbidea errepasatuko dute

Itzea Urkizu Arsuaga

Yllana antzerki konpainia 1991. urtean sortu zen, keinu bidezko umorea lantzeko asmoz, eta oraindik ere arte diziplinen munduan dabilta, bide berrien bila. 2016an mende laurdena bete zutela-eta, 25 urteko ibilbidea gogora ekartzeko eta ospatzeko ikuskizuna sortu zuten, eta Tolosako Leidor aretoan ikusgai izango da, gaur, 20:30etik aurrera.

Udazkeneko kultur egitarauko hitzordu nabarmenetako bat izango da *Lo mejor de Yllana*, eta beren ibilbideko gag eta esketx onenak bildu dituzte saioan. Sarrerak eskuragarri daude ticket.kutxabank.es webgunean.

Marcos Ottone, Juan Ramos, Joe O'Curreen, Fidel Fernandez eta David Ottone dira Yllana taldeko kideak, baina haien atzean sormen lan talde handi bat aritu da, urte horietan guztietan. Izan ere, keinu bidezko antzerki eta umorearekin hasitakoa beste zenbait jardunetara dibertsifikatu du Yllanak.

Horrela, oholtzan bezala aritzen dira, gaur egun, ikus-entzunezkoen esparruan ere. Batetik, sormena eta ekoizpena jorratzen dute, antzerkian eta ikus-entzunezkoetan eta, besteak beste, Paramount Comedy katearekin elkarlanean daramatzate urteak. Bestetik, Yllana konpainiak antzerki espazioak ere kudeatzen ditu, eta kultur proiektuak sustatzen. Horrela, Madrilgo Alfíl antzokiaren ardura euren da, esaterako.

Hiru milioi ikusle

Konpainia hara eta hona ibili da 1991az geroztik eta, 28 urteotan, 30 antzezlan sortu dituzte, guztira. Lan horiek guztiak 12.000 aldiz eskaini dituz-

te 40 herrialdetan – besteak beste, New York, Montreal, Mexiko Hiria, Erroma, Londres eta Paris– eta, zenbakiak biribiltzen jarraituz, 3 milioi ikus-entzule izan dituzte urte, herrialde eta antzoki horietan guztietan.

Mende laurdeneko esperientzia, gainera, hainbat sari eta errekonozimenduz jantzi dute Yllana konpainiako kideek. Zenbait aipatzearren, 2019an bertan jaso dituzten hiru: Ikuskizun onenaren Estruz saria, *The Opera Locos* ikuskizunagatik; musika ikuskizun onenaren ikuslearen Avignon saria, *The Primitives* lanagatik; eta musika ikuskizun onenaren Max saria, *The Opera Locos* ikuskizunagatik.



Jesus Torquemadaren saioetarako izen-ematea

Gizartea. Tolosaldea Lanbide Heziketa Institutuak eta Ikastn zerbitzuak hamaikagarrenez antolatute Nazioarteko Gaurkotasun Soziopolitiko mintegia, Jesus Torquemadaren eskutik. Azaroaren 11n hasiko da lehen saioa, eta izen-ematea zabalik da honezkero, 35 euroan, lekuak bete bitarte, www.ikastn.com webgunean.

Alpinoren irteera, Bidasoa Garaira

Mendia. Alpino Uzturre taldeak mendi irteera antolatu du, datorren urriaren 20rako, Bidasoa Garaira. 19 kilometroko ibilbidea egingo dute, 1.100 metroko desnibelarekin, eta 6 ordu inguruan osatuko dute bidea. Izena emateko alpinouzturre.eus, info@alpinouzturre.eus edo 943 65 27 89 balia daitezke. Bazkideek 13 euro, ez bazkideek 15.

'Stop Motion' lehiaketa, aldaketa klimatikoa landuz

Ingurumena. Topic zentroak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailak 14-17 urte bitarteko Instagram lehiaketa antolatu dute, aldaketa klimatikoaren inguruan. Bideo formatuan, *stop motion* teknika baliatuz bidali beharko dituzte lanak, abenduaren 31ra bitarte, eta [@aldaketaklimatikoagipuzkoan](https://twitter.com/aldaketaklimatikoagipuzkoan) profilean jarraitu ahal izango dira.



JOXI ETA JOXEAN OMENDU DITUZTE 36. URTEURRENEAN

1983ko urrian bahitu zituen GAL-ek Joxean Lasa eta Joxi Zabala, Baionan. Joan den asteazkenean, urteroko omenaldia egin zieten, Olarrainen haien monolitoa dagoen txokoan. Senide, lagun eta herrikideekin batera, bertan izan zen, besteak beste, Mertxe Aizpurua Espainiako Kongresuko EH Bilduko diputatua. Ezker abertzalearen izenean irakurri zuten ekitaldiko adierazpena, eta duela 36 urteko Galiñoren aipu batzuk gogora ekartzearekin batera, konponbideari dei egin zioten, Altsauko gazteen kasua gaitzetsiz, eta *Naparra*, *Txirrita* eta *Ttottonen* kasuak argitzeko exijituz. **ATARIA**



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

HERNIO MAGALEAN EGIN DUTE HABIA

Fagus Alkiza interpretazio zentroak 'Sormenaren Kabia' bekaren bigarren deialdian saritutako bi artistek egonaldia egin dute herrian; argazkilaritza, musika, eta dantza bezalako diziplinak landu dituzte asteotan.

Jon Miranda

Dantzariak, koreografoak, clownak, aktoreak, marrazkilariak, irakasleak, zinemagileak, antzerki sortzaileak, abokatuak... denetariko profesionalen lanak jaso dituzte aurren Sormenaren Kabia deialdiaren bi-

garren edizioan. 24 proposamen izan dira, Euskal Herriko artistek eta Espainia, Txile, Argentina, Lituania eta Frantziakoek aurkeztu dituzte, besteak beste.

Jaso dituzten proposamenetatik hamabost emakumezkoenak izan dira, lau gizonezkoenak eta bost konpainia artistikoenak. Hautagaien ba-



MugMus konpainiakoak entseatz. ATARIA



Legarretak eskainitako tailerra. U. SORRARAIN

taz besteko adina, bestalde, 35-40 urte bueltakoa izan da.


Proposamenak aztertu ondoren epaimahaiak uda aurretik erabaki zuen Nagore Legarreta eta Beñat Ralla sortzaileen proiektuak aukeratzea. Irailean izan zen Legarreta Alkizan eta gaur bukatuko dute egonaldia Rallak eta bere taldekideek.

«GIZAKIA NATURAREKIN HARREMANETAN JARTZEA DA NIRE PROIEKTUAREN IDEIA»

NAGORE LEGARRETA
ARGAZKILARIA

J.M.

Argazkilaritza pasio eta ogibide ditu Nagore Legarreta Alcelayk (Hernani, 1981). Gaur egun klaseak eta tailerrak eman eta sortzaile eta erakundeentzat enkarguak egiten ditu. Artista gisa, ikerketan eta sormenean dabil.



Alkizakoaren aurretik beste egonaldiren batean egon zara?

Egonaldien ideiak asko erakarri izan nau betidanik. Gehiago izan naiz horrelako deialdietara aurkeztekoa, lehiaketa eta bestelakoetara baino. Egonaldiak beste leku batzuk ezagu-

tzeko aukera ematen dizu. Duela bi urte, bi hilabetez egon nintzen Polonian, Etxeparek eskainitako beka batekin. Hain zuzen, bertan garatu nuenaren hariari segitu diot Alkizan.

'Ibaia ez da toki bat' izenburuko proiektua zen hura.

Urumea ibaiarekin hasi eta Polonian jarraitu nuen proiektua. Ibaiak garrantzia handia du, geografikoki eta demografikoki, hemen Hernani aldean eta baita ere Polonian egon nintzen Wroclaw hirian. Egia da Alkizan dauden ezaugarriengatik, ibaiak ez duela hainbesteko inportantzia, hemen Hernio-Gazume inguruak hartzen du bertako biztanleen arreta eta protagonismoa. Azkenean proiektuaren ideia da, gizakia naturarekin harremanetan jartzea, ekintza artistikoak gauzatuz. Nik ontziekin argazki kamerak eraikitzeo tailerra antolatu nuen, jendeak tresnak eduki zitzaen bere ingurunea esploratzeko eta beren buruari galdetzeko ingurunearekin zein harreman duen. Proiektuak badu beste alde bat: naturak nola ikusten dituen gizakia aztertzea, naturaren begietan kamera jartzea. Galdera hori erantzun nahian aritu naiz.

Zer ikusten da naturaren begietatik?

Alde hori garatzeko saiatu naiz basoan murgiltzen eta nire buruaz ahazten. Naturak nora begiratuko lukeen galdetuz jarri ditut kamerak. Batez ere landareetan jarri dut arreta eta Hernio-Gazume inguruan dauden errekatxo txikietan. Ikertzen saiatu naiz, landare batek zer beharko lukeen bizirauteko. Argia, ura eta horrelako gauza sinpleen inguruan aritu naiz, irudi erakargarriak lortu nahian.

Zure ustez zein harreman dugu ingurunearekin?

Badago harreman kontraesankorra. Bizkar eman diogu naturari, baina urtetan inguruneaz baliatu gara gure bizimodua aurrera ateratzeko, natura ustiatuz, gehienetan oso modu arduragabea. Gaur egun erakundeen agendetan naturaren eta ingurugiroaren gaia sartzen ari da, geroz eta indar gehiagoz. Gizakia eta naturaren arteko harremana oreka batera iritsi dadin egin behar dugu lana.

Jarraituko duzu ikerketarekin?

Nire ikerketa pertsonalak jarraituko du. Ni pertsona kurioa naiz, ez dakit gauza propioak sortu gabe egoten.

«DENBORA DA ZUKUTU NAHI GENUKEEN KONTZEPTUA EMANALDI BERRIAN»

BEÑAT RALLA
MUSIKARIA

J. M.

Gaur bukatuko dute egonaldia Beñat Ralla Yustak (Donostia, 1985) eta bere taldekideek. Berezia izan da esperien-



tzia beretzat, amak euskara ikasi zuen eraikin berean, sormenerako laborategia muntatu duelako semeak, 35 urte geroago, euskaraz.

MugMus konpainiako zuzendaria artistikoa zara. Zein lan egiten duzue?

MugMus izenak, mugimendua eta musikari egiten dio erreferentzia. Konpainia 2016 inguruan sortu genuen. Genevan lan bat egin nuen, master amaierakoa, hamar minutuko eszenaratze bat planteatzen zuena. Donostia Europako kultur hiriburu-tzaren testuinguruan sormen beka baterako deialdia egin zuten eta proiektua aurkeztu nuen, gehiegi pentsatu gabe. Beste lau proiektuekin batera saritu zuten. Bat batean, gauetik goizera, konpainia bat egituratu behar izan nuen. Zumaia, Luhuso eta Gasteizen egindako hiru egonalditan ondu

genuen, gero, *Esku Harriak: Oteizarren (h)aria* lan inter-diziplinarra. Zuzeneko musika, dantza, eszenografia eskultoriko bat eta laugarren lengoaia moduan, hitza eta euskara biltzen ditu. Horretan, Amets Arzallus bertsolariaren kolaborazioa izan genuen. Lan horri ahalik eta zabalpen handiena ematen saiatu gara ordutik. Emanaldi sorta hori bukatzen ari gara eta 33. aldiz eman berri dugu.

Konpainiaren bigarren ikuskizuna prestatzeko proiektuarekin lotu duzue Sormenaren Kabia beka.

Bai. Abuztu amaiera, iraila hasieran abiatu genuen lehenengo entsegu zikloa eta Alkizan hamabost egunez beste bultzada bat eman diogu. Beste egonaldi bat daukagu hitzartuta abenduan edo urtarrilean.

Noizko izango duzue prest emanaldi berria?

Laguntza honetaz gain, Eusko Jaurlaritzaren ekoizpenerako diru laguntza bat jaso dugu eta 2020an estreinatutako behar dugu ikuskizuna. Beraz atzera kontua hasi da, eta hori ona da, erabakiak hartzea behartzen gaituelako.

Zeintzuk osatzen duzue konpainia?

Lehenengo lan horretatik bigarren honetara, taldea egonkortzeko apustua egin dugu. Agertoki gainean lau kide gara: dantzariak Jone Amezaga donostiarra eta Ioritz Galarraga amasarrak dira, eta musikarekin, Iñar Sastre irurarra eta ni neu aritzen gara. Aurreko ikuskizunean kale aldaeran bertsolari batek parte hartu ohi zuen, emanaldiko ezberdina zena. Oraingo honetan, gonbidatu berezia idazle bat izango da. Asmoa emanaldi bakoitze-

rako idazle batekin kontatu ahal izatea da eta bertsolariaren bat ere gonbidatzea, noiz edo noiz.

Musikaren atalean zer da eskainiko duzuen?

Iñar eta biok dugu formazioa pianoan eta perkusioan. Iñar gainera inprobisatzaile bikaina da. Biekin jokatu dugu beraz, piano eta perkusioarekin eta instrumentu elektriko batzuen erabilera egiteko asmoa dugu, beste atmosfera batzuk lortzeko.

Zein gairen inguruan arituko zarete ikuskizun berrian?

Transzendental puntua izango du agian, baina denbora da zukutu nahi genukeen kontzeptua emanaldi berrian. Denbora eszenan irudikatzen saiatzea, zuzeneko musikarekin, mugimenduekin eta eszenografiarekin.

Bertako eragileekin harremanetan jartzeko aukera izan duzue?

Bai. Herriko pertsona adinduekin elkarriketa batzuk egin ditugu ikusteko denbora nola irudikatzen duten. Gehienbat garai bateko eta gaur egungo denborarekiko pertzepzioaren arteko aldea aztertu nahi izan dugu, horretarako solasaldi libre eta erdi filosofiko bat edukita. Hortik ideia batzuk bereganatu ditugu eta grabatu ditugunez, audio horiek akaso baliatuko ditugu gero ikuskizunean, musika bezala fondoan jartzeko. Gu hiritik gatoz, eta landa giroan segur aski, ingurunearekiko eta naturarekiko beste harreman bat egon denez, horrek eragin handia du bizitzan, urtea eta eguna antolatzerako orduan.

Izena badu ikuskizun berriak?

Bai. *Garaiz*, 60 taupada minutuko izenburua eramango du lanak.

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ataria jarrita
Goierriko eta
Urola Kostako
Hitzetan DOAN

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Txapelketan parte hartuko duten pilotarietako batzuk, eta aurkezpenean izan ziren ordezkari ezberdinak, Alegiako Route 33n. E. MAIZ

Etorkizuneko pilotarien erakusleiho, Ogi-Berri torneoa

Migel Soroaren oroimenezko VIII. Ogi-Berri Torneoari hasiera igandean emango diote, Beotibar pilotalekuan

Eneritz Maiz Etxarri

Pilota gabe gure herria ez litzateke Euskal Herria, eta pilota dugu gure izaera» esanez hasi zuen VIII. Ogi-Berri torneoaren aurkezpen ekitaldia Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak. Igandean emango zaio hasiera txapelketari, 16:30ean, eta jubenil, promesa eta elite mailako partidak jokatu dira. Hamabost jaialdiz osatutako txapelketa izango da Migel Soroaren oroimenez egiten dena. Partida guztiak Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu dira, arratsaldean. Hiru kategoriatan banatuta, 36 bikotek parte hartuko dute; maila bakoitzean hiru bikoteko lau talde lehiatuko dira.

Guztira 72 pilotarik parte hartuko dute. Horietatik 36 gipuzkoarrak izango dira, eta horietatik lau Tolosaldekoak. Hamasei Nafarroatik etorriko dira, hamahiru Bizkaitik, bost Errioxatik eta bi Arabatik. Hamar jaialdi igande-

tan jokatu dira, eta bost larunbatean. Finalak, berriz, 2020ko otsailaren 8an jokatu dira.

Gotzon Enbil Euskadiko Pilota Federazioko presidenteak eskerrak eman zizkien, «antolatzaileei, babesleei, eta baita pilotariei ere, pilota sustatzeko egiten duten lanarengatik». Onartu zuen txapelketa pribatuek, askotan, arazoak ekartzen dituztela, baina era berean, «afizioa sortzeko txapelketa onak dira», gaineratu zuen. Tolosako udal ordezkariak ere ez zuten hutsik egin, eta Olatz Peon alkatearekin batera izan zen Jose Mari Villanueva kirol zinegotzia. Eskerrak emateaz gain, herritarrei pilotalekura gerturatzeko deia egin zieten.

Alex Sanchez Ogi Berriko ordezkaria, Iker Ariznabarreta Bankoakoa, Antton Soroa, Miguel Soroaren semea eta Aviako Jon Ander Mitxelena ere aurkezpen ekitaldian izan ziren.

Master Cup, Amezketan

Lau eta Erdiko Eskuz Banakako Laboral Kutxa Emakume Master Cup txapelketako pilota partidak Amezketako pilotalekuan jokatu dira, bihar,

16:00etan. Pilota mixtoko sei partida izango dira jokatu direnak. 92 pilotari ariko dira txapelketan, eta horietako 19 dira pilota mixtoarekin lehiatuko direnak.

Hauek izango dira elkarren aurka jokatu duten bikotek: Uxue Osés eta Yarla Carrascal, Miren Olondo eta Ibone Salinas, Laia Salsamendi eta Mirian Arraiz, Madalen Etxegarai eta Amaïur Pikatza, Maddi Unanue eta Andrea Capellan, eta Ane Mendiburu eta Maddi Berrokal.

Bote luzeko finalak, etzi

Gipuzkoak Bote Luzeko Euskal Herriko Txapelketako finalak jokatu dira, etzi, Berrizen. 17:00etan hasiko dira, eta edizio guztietan iritsi badira ere gipuzkoarrak finalera, ez dute inoiz lortu txapela janztea. Laugarren finala azken bi urtetako aurkari beraren aurka izango dute: Bizkaia.

Gipuzkoako taldea pilotari hauek osatzen dute: Jon Urbieta, Andoni Urbieta, Ibai Urbieta, Gaizka Iruretagoiena, Iñaki Esnal eta Adrian Bengoa Tolosaldekoek eta Jon Ander Esnaola eta Aimar Orbegozok.

«NIRE HELBURU GARBIA LEHEN BI POSTUETAN SARTZEA DA»

JON IRAZU
AIZKOLARIA

Euskal Herriko Bigarren Mailako Txapelketa jokatu du, bihar, Jon Irazu zizurkildarrak; txapelaren bila joango da.

E. Maiz

Bigarren mailako txapelketako kanporaketan bigarren postua lortu eta gero, bihar, Altsasun, 18:00etan, finalean ariko da Lopez, Mugertza, Etxeberria, Corchero eta Jauregiren aurka.

Nola sentitu zinen kanporaketako saioan?

Kanporaketan fuerte hasi nintzen eta gorputzak erantzun egin zidan. Akats batzuk egin nituen, baina nik uste baino hobeto moldatu nintzen, eta finalean pasatzea lortu nuen.

Sartzea espero zenuen.

Bai, nik esperantza handia nuen finalera sartzeko. Berez, pixka bat entrenatuta nengoen eta ilusio handiz nengoen. Azken hiru postuak eta gero, beste bi-hiru oso denbora gutxiren barruan sartu ziren, eta edozein akats txikirekin horiek ere aukera izango zutela iruditzen zait.

Sailkatuen artean ezustekorik izan duzu?

Edozeinek sartzeko aukera zuela ikusten nuen. Bai kanpoan geratu direnak eta bai sartzeko lortu dutenak oso segundo gutxiren tarte zuten, eta edozeinek zuen aukera.

Biharkoari begira zer moduz sentitzen zara?

Orain katarro pixka bat daukat, beste la gustura nago. Plazara ilusioarekin noa, bigarren egin nuen kanporaketan, eta ea berriz ere, aurreneko bi postuetan sartzen naizen lehen mailara igotzeko.

Horixe da zure helburu garbia.

Bai, bai. Nire helburu garbia lehen bi postuetan sartzea da. Ea horixe egitea lortzen dudana. Egun biribila aterata be-



har du horretarako, eta gauza guztiak ondo egin behar dira, akatsik egin gabe. Esan dudana moduan, beste guztiak ere hor daude ondo prestatuta. Guztioi gustatzen zaigu txapela jantzea, dudarik gabe.

Aurkari zuzenik ikusten duzu?

Aurkaririk zuzenena Lopez bera izango da, eta atzetik 20 segundora sailkatu zen Mugertza, eta horiek biak oso aurkari zuzenak ikusten ditut. Eta beste guztiak ere, ez dakit lehengoan egun ona edo txarra izan zuten, baina guztiak kontuan hartu behar dira. Edozein atera daiteke behetik gora, ezusteko bat emanez.

Zer lan egin beharko duzue bihar?

Bi kana-erdiko, bi 60 ontzako eta bi oinbiko izango dira.

Kanporaketa baino luzeagoa joango da.

Bai, kanporaketan baino egur bat gehiago dugu, eta horietako bat gainera pixka bat handiagoa.

Kopako lehen kanporaketa gainditu du Lauburu Ibarrek

Iruñeko AD San Juan taldeari 2-4 irabazi dio; hurrengo kanporaketa bigarren mailako talde baten aurka izango du

Erredakzioa Ibarra

Kopako lehen kanporaketa sendo pasa du Lauburu Ibarra taldeak. Iruñeko A.D. San Juan taldearen aurka jokatu du kanporaketa, partida batera, eta 2-4 irabazi du partida. Lehen zatia bina bukatu dute, eta oso parekatua izan da. Bigarren zatian ibartarrak sendoago atera ziren kantzara eta garaipena eskuratu dute.

Pasa den denboraldia bigarren postuan amaitu ostean lortu zuen Lauburu Ibarrek Errege Kopa jokatzeko aukera. Lehen kanporaketa gainditu ondoren, orain bigarren mailako talde baten aurka jokatu du hurrengo kanporaketa. Kasu honetan, etxean jokatu dute eta berriro ere partida bakarrera izango da. Kanporaketa urriaren bukaeran edo azaroaren hasieran jokatu dute.

Iaz ere kopa jokatzeko aukera izan zuen, eta lehen kanporaketa A.D. San Juanen aurka irabazi zuen. Ondoren, egokitu zitzaion bigarren mailako taldearen aurka galdu egin zuten. Ea aurtengo ezustekoa emateko gai diren.

BILLABONA FUTBOL KIROEL ELKARTEA	
ARRATZAINGO FUTBOL ZELAIA	
Larunbata, 19 - 10:00	Infantil txiki maila
BILLABONA FKE - BEASAIN S.D.	
Larunbata, 19 - 12:00	Infantil 1. maila
BILLABONA FKE - HERNANI C.D.	
Larunbata, 19 - 15:30	Kadeteen ohorezko maila
BILLABONA FKE - BETI ONA C.D.	
Larunbata, 19 - 17:30	Preferente maila
BILLABONA FKE - ZUMAIAKO F.T.	
Igandea, 20 - 11:00	Kadeteen 1. maila
BILLABONA FKE - ESUAKALDUNA S.D.	



ataria
argazki lehiaketa

Udako argazki lehiaketa irabazleak



Epaimahaiaren saria: Juanan Dorronsoro / Begira.

**Bi lagunentzako asteburu bateko
egonaldia KURTZIA Landetxearen eskutik.**

www.kurtzia.com 946840607 • 616945662 •
Kurtxiaga auzoa, 11 - 48288 ISPASTER (Bizkaia)





ataria.eus-eko erabiltzaileen saria: Nere Karrera / Flamenkoaren isla da.

**Lau lagunentzako bazkari bat
Inazio Urruzola txakolindegian**

Inazio
URRUZOLA
"TXAKOLINA"

inaziourruzola.eus •
658 734 471 | 605 758 572
Arana Bailara, 18, 20494 Alkiza



atarikide-en saria: Izarne Olano /
Euskal Herriko udak.



atarikide-en saria: Miren Izagirre / India. Gizonezko bat
garbiketan, zapi morea esku artean.

Zumardia elkarteak eskainitako bi neguko eski ikastaro.
www.zumardia.eus • 688 726 213 info@zumardia.eus

zumardia
nature - hezkuntza - kirola

Ataria jarriko da saridunekin harremanetan

Sare sozialetako mezuen sentimendua erauzteko sistema eleaniztuna



12

Gaur egun gero eta gehiago erabiltzen ditugu sare sozialak gure iritzia agertzeko, eta enpresa eta erakundeek jakin nahi izaten dute zer esaten den haiei buruz sare sozialetan. Enpresei, adibidez, interesatzen zaie zenbaterainoko sona duten gizarteak; edo erakunde publikoek jakin nahi izaten dute gizarteak zer jarrera duen haien politiken gainean.

Baina iritzi horiek denak banaka irakurtzea eta iritzi positiboa, negatiboa edo neutroa nagusitzen den jakitea oso nekeza eta garestia gerta daiteke. Beraz, informazio hori erauzteko lana automatikoki egingo duten tresnak ezinbesteko bilakatu dira.

Lehendik bazeuden halakoak egiteko sistemak zenbait hizkuntzatan; ez euskaraz, ordea.

Orain, euskarazko iritzi-erauzketan aitzindaria den lan bat garatu du Iñaki San Vicente Roncal Elhuyarreko iker-tzaileak bere doktorego-tesian. Eta, tesian garatutako teknologia oinarri hartuta, euskarazko sare sozialetako mezuen polaritatea edo sentimendua (positiboa, neutroa ala negatiboa) hautemateko lehen sistema sortu du Elhuyarreko I+G unitateak, eta publiko jarri du, gainera.

Euskal Herrian idatzitako Twitterreko txioen % 15 inguru dira euskarazkoak; guztira, 2,5 eta 2,8 milioi txio idazten dira euskaraz urteko. Gainerakoak, gaztelaniaz eta frantsesez dira

batez ere, eta, hein txikiago batean, ingelesez. Horrenbestez, lau hizkuntza horietan landu ditugu sare sozialetako mezuen sentimendua analizatzeko sistema osatzen duten baliabideak.

Lehen pausoa polaritate-lexikoak sortzea izan zen; hau da, berez sentimendu positiboa edo negatiboa duten hitzen zerrendak osatzea: txarra-ona, gaiztoa-zintzoa... Hori egitean, testuingurua ere kontuan izan behar da. Izan ere, testuinguruaren arabera, hitz berak polaritate desberdina izan dezake. Esate baterako, salmentak jaistea txarra da; aldiz, langabezia jaistea, ona. Hortaz «jaitsi» hitzaren polaritatea aldatu egiten da testuinguruaren arabera. Horrez gain, kontuan hartu behar dira ezezkkoa adierazteko erabiltzen ditugun hitzak: ez, baina, aldiz, ordea... eta baita hitzen erabilera ironikoa ere.

Bestalde, Twitterren berezko idazkera informalak ere sortzen ditu arazoak. Twitterren ahozko hizkeraren transkribapen moduko bat egiten dute askok, edo bi hizkuntza nahasten dituzte txio berean. Bazuetan, hitz bati enfasia emateko, azken bokala errepikatzen da, eta emotikonoak ere erabiltzen dira, hain justu, sentimenduak adierazteko. Horrez gain, partikula indartzaileak eta murriztaileak daude: oso, gutxi, agitz, erabat... Horiek guztiak hartu ditugu aintzat lexikoa osatzeko.


Eta behin lexikoa osatuta, lexiko hori ikasketa automatikoko sistemetan integratzea izan da hurrengo pausoa. Horrelako sistemak entrenatzeko, milaka adibide sailkatu ditugu eskuz, hiru multzotan: positibo, negatibo edo neutro. Horrela, sistemari eredu matematiko bat irakatsi diogu; hala, adibide berri bat etorritakoan, aurrekoetan oinarrituta esango du positiboa, negatiboa ala neutroa den.

Euskarazko sailkapenaren asmatzetasa beste hizkuntzetan izaten denaren parekoa izatea lortu dugu. Gaur egun, % 75 ingurukoa da asmatze-tasa, baina Elhuyarreko kideak emaitza hobetzeko lanean ari gara, sare neuronaletan oinarrituta. Bestalde, hasiera batean sistemak testu idatzietako iritziak soilik erauzten bazituen ere, orain gai da bideoak eta audioak ere aztertzeke eta haie-tan dauden iritziak hautemateko.

Sistema aurreratu hau dagoeneko erabili dugu aplikazio errealetan. Behagunearen bidez (behagune.elhuyar.eus), Donostia 2016 Hiriburutzako proiektuen jarraipena egin genuen. Berriarekin batera, berriz, 2016ko EAEko Legebiltzarrerako hauteskunde-kanpaina aztertu genuen. Eta 2018an, EHUKo Kriminologia Institutuarekin, terrorismoaren biktimen inguruan sare sozialetan zer jarrera dagoen aztertu dugu. Beste zenbait proiektutan ere martxan dago gaur egun.

Ikerketa-lana Euskal Herriko Unibertsitateko IXA taldearekin elkar-lanean egin da, eta emaitza guztiak eskura daude Elhuyarren Hizkuntza Teknologien webgunean (hizkuntza-teknologiak.elhuyar.eus).

SAROI JAUREGI AIESTARAN
ELHUYAR HIZKUNTZA ETA
TEKNOLOGIA UNITATEKO
KOMUNIKAZIO-ARDURADUNA



NAIARA SARASKETA

Konplazientzia

Astelehen buruzuri berri bat. Kontsulta bat pasadut, talde saio bat ondoren, beste saio bat, paziente berri bat orain.

Hogeita bost urteko emakume gaztea nire aurrean: Alazne, harreman sexualetan min hartzen dut! Mina da, ez dakit ziur noiztik baina badira hilabete batzuk mina sentitzen dudala eta gozamina, gozamina desagertu da sarketa gabe arituta ere. Nire hankartearekin deskonektatu naiz.

Luze hitz egin dugu, bere egunerokoaz: lana, osasuna, elikadura, ziklo hormonal, emozioak, sexualitatea, heziketa. Millenian bat izanik duela hilabete batzuk bere mugikorrean Googlen sartu zituen hitz magikoak: harreman sexualak-sarketa-mina. Eta hara, fisioterapia arloko artikulu batekin topo egin omen zuen eta orduan ikasi zuen dispareunia koitoan sentitzen den mina deskribatzen duen hitza dela. Hurrengo pausoa, berriro Googlen: fisioterapia-zoru pelbikoa-Gipuzkoa. Lagun baten kontsultara iritsi eta hark bidali du nigana, ordura arte jasotako irtenbideek arazoa ez konpontzeaz gain bere egonezina areagotu dutelako.

Hitz egiten jarraitu dugu, ni adi, argia piztuko ote zaidan, kontatzen ari denaren lerroartean zerbaitek ihes egin ez diezadan. Aipatu dit ginekologoarenen izan dela; batek garrantzirik ez omen dio eman, «pasako zaizu». Besteak aldez krematxo bat eman dio minik izan ez zezan baina ez du funtzionatu, sentsazio desatseginak sortarazi dizkio. Crema aztertu dut: anestesiko bat da! Hara, a zer soluzio bikaina! Neskak ez du minik sentituko sarketa jolasetan, ezer sentituko ez duelako! Bikotekidearen sarketa gozamina behintzat bermatuko duen tratamendua. Alajaina! Nire haserrea ezkututzen saiatu naiz, ez fisioterapeuten haserrea, emakume haserrea baizik! Baina ezin horretan erori, ez kontsultan behintzat.



**ALAZNE
APALANTZA**
FISIOTERAPEUTA

Solasaldia aurrera doa, nire aurrean ahaldundutako emakume gazte eta askea dudala baieztatu dut. Ze poza. Bikotekideak errespetatzen du eta beraien jolasa aldatzeaz gain, berriz plazera izan dezan laguntzeko prest agertu da. Emakumeak lagunartean ere hitz egin du bere arazoaz, badira hilabeteak ez gozatzeaz gain mina sentitzen duela jolas intimoetan eta bera, ordura arte bere sarketa harremanez gozatu duen pertsona izaki ez dago prest horrela jarraitzeko. Eta bapatean beste zaplaztekoa. Lagunmin batek, gizona bera, erantzun dio normala dela, berari sarri gertatu omen zaio, emakumeon gauza omen da, askotan izaten dela mina, ezina, gure aluetan arazoren bat izango omen dugu eta bikotekideak gozaten badu gaitzerdi.

Pazientearen kasua bera alde batera utzita hausnarketarako bide eman dit lagunarteko elkarrizketa horrek. Bost emakume eta gizona gazteren arteko elkarrizketa. Harreman sexualen helburua besteari gozaraztea dela sentitzen duten gizon eta emakumeak. Harreman sexualak koitalak izan behar direla uste duten gazte eta ez hain gazteak. 2019an, ai ama! Heziketa sexual errena jaso duten belaunaldiak, pornografiaren erdua iturri duten belaunaldiak, beste atsegin behar diegula dioen gizartea. Konplazientzia. Munduko Osasun Erakundearen arabera, emakumeon %8-22ak noizbait mina sentitu dugu harreman sexualetan.

Ehuneko hogeita bi! Eta argitu beharko litzateke, lotsaz ezkutuan bizi dutenak zenbat diren, diagnostikatu gabeak zenbat diren. Izugarria da!

Konpromisoa, konpromisotzat sentitu dut nire seme-alabak hezte, heziketa sexual aske eta parekide batean murgiltzea, ahobero hala diogun arren, benetako garaian eskas gabiltzalako. Konpromisoak eta helburuak, tantaz tanta, etxez etxe, lagunetik lagunera, maitaletik maitalera errazago bete ditzakegulako. Has gaitezen, berehala, gaur bertan.

EUSKARA BIZIBERRITZEKO AHALA, EDO NAHIA?

Urriaren 9an, XI. Euskal Soziolinguistika Jardunaldia egin zuten Tolosan. Bertan bildu ziren dozenaka ikertzaile, dinamizatzaile eta eragile, Euskaraldiari buruzko ezagutza partekatu eta hausnarketarako deia luzatzeko. Norberaren konpromiso mailari eman nahi izan zioten garrantzia, hizkuntza gaitasunaren gainetik.

Josu Artutxa Dorronsoro

Euskararen biziberritzearekin loturiko soziolinguistikaz hausnartzeko, eztabaidatzeko, ezagutza partekatzeko eta esperientzia berriak proposatzeko plaza bilakatu zen, pasa den astean, Tolosako Topic zentroa. Soziolinguistika Klusterrak bertan burutu zuen Euskal Soziolinguistika Jardunaldiaren hamai-kagarren edizioa. 2008an egin zen lehen edizioa, eta ordutik aurrera, urtero gai bat ardatz hartuta lantzen da topaketa. Batzuetan, erakusleihu izan ohi da, baina, beste batzuetan, beste eragile batzuekin antolatzen da.

Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin elkarlanean antolatu zuten aurtengo saioa. Gainera, Tolosako Udalaren eta Euskaltzaleen Topagunearen babesa eta laguntza izan zuten jardunaldia antolatzeke. Euskara biziberritzeko ikergunea da Soziolinguistika Klusterra, eta horrela, soziolinguistikaren ezagutzaren pre-

mian dauden edo ezagutza hori sortzen duten eragile desberdinak bildu ziren Topic-en: unibertsitateko irakasle eta ikertzaileak, hizkuntza, hezkuntza eta kultura arloko teknikari eta aholkulariak, euskalgintzako dinamizatzaile eta aktibistak, gizarte eragileak edota euskaltzaleak.

Euskaraldia izan zen aurtengo topaketarako aukeratu zuten gaia. Euskararen biziberritzeari begira martxan jarritako ekimen berritzailea eta zabala izan zen. Milaka herritarrek zuzenean parte hartu zuten, iazko udazkenean, hizkuntza-ohituretan eragiteko ariketa sozial erraldoian. Gainera, erakunde, elkarte, entitate eta batzordenen arteko elkarlanari esker izan zen posible ekimena. Emaitzak mahai gainean jarri eta hobekuntzarako ikasgaiak ateratzea zen helburua.

Horretarako, hiru hitzaldi eta tailerrak antolatu zituzten. Lehenik, Pello Jauregik eta Uxoa Anduagak, Euskaraldiaren gainean egindako ikerketaren emaitzak aurkeztu zituzten. Bestetik, Gaindegiko, Ebeteko eta Soziolinguistika Klusterreko ordezkariak, Euskaraldiarekin gauzatutako



beste ikerketa batzuen berri eman zuten. Azkenik, Euskaraldiaren ondorioen eta ikasgaien gaineko hiru begirada aurkeztu zituzten Paula Kasares, Josu Amezaga eta Gari-koitz Goikoetxea adituek. Lantegietan, bestetik, hitzaldietan jasotako ideia edo ondorio interesgarrienak eta kezkarrienak bildu zituzten, horien gainean hausnartu eta hurrengo edizioetarako erronkak zerrendatu aurretik.

Hizlaria gustura aritzearen garrantzia

«Aldaketa handiena gune erdaldunetan jasan du Euskaraldiak; txikiena, berriz, gune euskaldunetan». Ondorio horrekin abiatu zuen lehen hitzaldia, Peio Jauregi EHUKo kideak. Eremuaren garrantzia ez ezik, adinarena ere aipatu zuen: «Adinean gora egin ahal, erabilera handiagoa zen Euskaraldiaren aurretik. Ariketa soziala gauzatu bitartean, alderantzizko joera eman da. Proportzioan, baina, ariketaren ondoren, zaharrenek gazteenek baino joera handiagoa izan dute euskararen erabilerari eusteko».

Jakina den moduan, bi rol desberdin aukeratu ahal zituzten herritarrek iazko Euskaraldian: Ahobizi edo Belarriprest. Bada, Ahobizi rola aukeratu zutenen %95a zen euskaldun osoa. Belarriprest izan zen herritarren %69a, berriz, euskaldun hartzailea izan zen. Hain justu, euskaldun hartzaileak izan dira aldaketa handiena jaso dutenak, bai

**«Aldaketa handiena gune erdaldunetan jasan du Euskaraldiak; txikiena, berriz, gune euskaldunetan»
PEIO JAUREGI**

Ahobizi izanda, baita Belarriprest izanda ere. «Rolak konpromiso mailarekin lotu behar dira, ez hizkuntza gaitasunarekin. Belarriprest izateak laguntza handia ematen dio pertsona bati bere hizkuntza ohituretan eragiteko».


Bestetik, elkarriketei dagokionez, bi kasu azaldu zituzten ikertzaileek. Batetik, hizkuntza simetria, batak zein besteak euskaraz aritzeko ohitura dutenean ematen dena. Mekanismo horrek 9 puntu igo zen Belarriprest rola izan

zutenetan, Euskaraldiak iraun bitartean (%68an zegoen aurretik, eta hamai-ka egun horietako datuen arabera, %77an kokatu zen). Hiru hilabete beranduagoko datuen arabera, ordea, behera egin zuen, %71n kokatuz. Bestetik, elkarriketa elebidunez aritu ziren. Kasu honetan, herritarren artean ohitura handia izan zen euskaraz aritze-

ko, nahiz eta bietako batek euskaraz egiteko zailtasunak izan. Datu hori, ordea, 15 puntu jaitsi zen, gerora, Ahobizien artean, %78tik %63ra. Euskara erdizka edo ongi ulertzen zutenekin ere, euskaraz egiteko joera hartu zuten rol horretako herritarrek Euskaraldian.

Bi urrats aurrera, bat atzera

«Euskaraldiari esker, gizarte hitzarmenaren mekanismoa eta hizkuntza simetriarena aktibatzea lortu da», aitortu zuen Uxo Anduaga Soziolinguistika Klusterreko kideak. «Txapa ikusita, euskaraz egiteko beharra sentitu zuten as-



kok, baita solaskidearen hizkuntza berean (kasu honetan, euskaraz) erantzuteko beharra ere». Euskaraz aritzeko «konpromiso handiagoa» izan dela, eta horrek «gure hizkuntzari identitatea» eman diola gaineratu zuen. «Ekimenaren dimentsioa, gainera, oso egokia izan zen, eta erronka sentsazioa piztu zuen gizartean».

Hizkuntza praktikei dagokionez, «herritarrek ikuspegi errealistagoa» lortu dutela nabarmendu zuen. «Uste baino gutxiago egiten dugu euskaraz, nahiz eta ulertzen duen jende asko egon. Gainera, gaitasun mugatua dutenekin euskaraz jarduteko aurrerapausoak eman dira, baita elkarriketa elebidunei luze eusteko eta euskaraz egiteko eskaera asertiboa egiteko ere».

Baina, datuetan eta Euskaraldiak egindako ekarpenetan zentratu ondoren, ariketa sozial erraldoiaren balorazio orokorrago bat azaldu zuten, indarguneetan eta ahulguneetan sakonduz. «Batetik, elkarlana, aniztasuna, errespetua eta praktikotasuna ekarri ditu, herritarren hizkuntza ohi-turak aldatzeko baliagarria izan da, baita bi rolei esker hori

sustatzeko ere, eta aurrerapausoak eman dira euskaraz ulertzen dutenekin. Bestalde, konpromisoa eta rolen egitekoa ongi zehaztu gabe geratu da, Belarriprestei balio sozial baxua eman zaielako, epea laburregia izan da, eta gainera, ez da aurrerapausorik eman euskaraz egiteko edo ulertze-

ko zailtasunak dituztenekin. Orokorrean, baina, balorazio positiboa egiten dugu, aurrerapausoak, txikiak bada ere, eman direlako».

Euskaraldiaren balorazioaren atzetik, ariketak utzitako zifrak zehaztu zituen Gaindegia Behategiko Imanol Esnaolak. Tolosaldearen kasuan, %20,9ko parte hartzea izan zen. Euskal Herri mailan, parte hartze handieneko eskualdeen artean, hirugarren

postuan kokatu zen. Adinari erreparatuz gero, oro har, 15 eta 44 urte bitarteko tartea izan zen indartsuena; ahulena, berriz, 60 urtetik gorakoena. Gainera, generoari dagokionez, emakumezkoen parte hartzea handiagoa izan ziren. Euskal hiztunei dagokionez, Tolosaldean, %21,3ko parte hartzea izan zuten (Euskal Herriko 10. eskualdea).

«Txapa ikusita, euskaraz egiteko beharra sentitu zuten askok, baita solaskidearen hizkuntza berean –euskaraz– erantzuteko beharra ere»
UXOA ANDUAGA



«ULERMENAK ATE GEHIAGO IREKI, ETA ERABILERA INDARTUKO LUKE»»

HELENE ARMENTIA – ZESAR MARTINEZ

ELHUYAR – EHU

Soziolinguistikarako gakoak Euskaraldian izeneko hitzaldia eskaini zuten, Topic-en, Elhuyarreko Helene Armentiak eta EHUKo Zesar Martinezek. Euskaraldia hizkuntza-aktibazioaren ikuspegitik aztertuz gauzatu dute ikerketa zenbait herritan, eta jasotako balorazioak nahiz gogoetak plazaratu zituzten.

Datorren urteko udazkenean, bigarren aldiz egingo da Euskaraldia; ordurako, herritar bakoitzak erabakita izango du Ahobizi edo Belarriprest rola jokatu duen. Ekimenaren atzean, ordea, bada ikusezina den lana egiten duen Soziolinguistika Klusterreko kideen multzo bat. Euskaraldia aurrera ateratzeko lan handiena egin zuten herritarrekin kontaktuan izan ziren Helene Armentia eta Zesar Martinez. Gainera, Gipuzkoako bost herritan (tartean, Ikaztegi-tan), Euskaraldia antolatu zutenen esperientziak bildu dituzte, eta beraien ikerketa lanean jasotzen diren gako nagusiez, lorpenez eta hobetu beharrekoak aritu ziren, pasa den astean.

Iazko Euskaraldia ekimenak zenbait datu baliagarri eman zituen. Zer nolakoak dira zuen ustez? Agian, behar baino Ahobizi gehiago izan ziren?

Helene Armentia. Guk burutu dugun ikerketan ez dugu horrenbeste landu Ahobizi eta Belarriprest rola izan zituzten herritarren iritzia, Euskaraldia burutu zuten zenbait herrietako antolatzaileen iritzia bildu ditugulako. Horiekin azterketa kualitatibo bat egin dugu. Egia da, hala ere, zenbait daturekin bat datozela iritzia horiek. Agian ez genuen behar bezala transmititu bi rol horiek izan behar zuten jokabidea. Seguruenik hizkuntza gaitasunarekin lotu zen, baina, berez, norberaren errealitate soziolinguistikorekin, errealitate pertsonalarekin eta aukerekin lotu beharko litzake. Belarriprest gehiagoren falta sumatu izana izan zen azterketa gauzatutako herrietan jasotako iritzia errepikatuena.

Zesar Martinez. Ez da ahaztu behar ekimena berria dela. Denek lehen aldiz parte hartu zutela, eta ondorioz, hobetu beharreko gauza ugari daude. Norberaren konpromiso eta jarrera mailan eragitea da garrantzitsuenak, batez ere, puntu kezkarri bat identifikatu dugulako. Hain zuzen, Belarriprest izan diren rola prestigioa galdu duela, edo bigarren maila batean geratu dela. Horregatik, beharbada, gehienek zailtasunak izan dituzte rol hori hartzeko. Aldiz, aurkeztu dizkiguten datuen arabera, aldaketa nabarmenena figura horien artean eman da. Oro har, modu positiboan baloratu behar da ekimena, baina zehaztasunetara joanda, bada zer hobetua alderdi guztietan.

Zein izan da, beraz, zuen egitekoa Euskaraldia bukatu berrian?

H.A. Lehen esan moduan, antolatzaileen iritzia jaso ditugu. Mantentzekoak eta hobetzekoak identifikatzen ahalegindu gara. Oso ondo baloratu da erakundeen arteko elkarlana. Arrakastatsua eta eraginkorra izan da batzuetan, konplizitate handia lortu delako eta lidergoa partekatu delako. Beste batzuetan, ordea, ez dira maila horretara heldu. Beraz, zenbait kasutan, elkarlana ez da hain eraginkorra

**«Gure kulturen, oraindik, bi hizkuntzetako solasaldiak izatearen joera hori oso eskasa da»
ZESAR MARTINEZ**



izan. Bestetik, garrantzia handiagoa eman behar zaio antolaketa faseari, foko nagusia izen emate kopuruetan jarri gabe. Seguruenik, ikuspegia zabalduz gero, antolaketa on batek, arrakasta izateko aukera handiagoak emango ditu.

Gaurko saioetan nabarmendu den ideietako bat, elkarriketa elebidunak izatearena da. Zuen ustez, zer nolako garrantzia dute horrelako solasaldiek Euskaraldiaren barruan nahiz ariketa horretatik kanpo?

Z.M. Garrantzi handia dute, jakina. Hizkuntza erabilerari dagokionez, elkarriketetan bi jarrera izan daitezke. Alde

batetik asertziozko jarrera dago, eta bestetik simetria edo enpatia. Azken hau, bi pertsonen hizkuntza bera hitz egiten dutenean ematen da. Bestalde, elkarriketak elebidunak izan daitezke, bi hizkuntzetan funtzionatuz. Bata zein bestea, onuragarriak dira euskararen erabilera handitzeko. Argi eta garbi, gure kultu-

ran, oraindik, bi hizkuntzetako solasaldiak izatearen joera hori eskasa da. Esan beharra dago, gaia bera ere ez dela asko landu. Gaztelaniaren, frantsesaren eta euskararen artean, distantzia linguistiko handia dago, gainera; horrek, elkarriketa mota hauek zailtzen ditu. Gure ikerketaren ikuspegitik, nabarmena da Euskaraldia bezalako ekimen batek, giro sozial eta testuinguru sozial bat sortzen duela, non erraztasun, babes eta zilegitasun handiagoarekin ausartzen garen asertziozko jarrera nahiz simetrikoa izatera. Orain, hausnartzea eta lan egitea egokitzen zaigu, giro hori atseginagoa izan dadin.

Zuek aktibaziorako gakoak izeneko hitzaldia eskaini



duzue. Zer da hitzaldi honetan azaldu duzuen eta zeintzuk dira aktibaziorako gako horiek?

Z.M. Euskaraldiaren aurretik, Soziolinguistika Klusterrean lanean batera aritzen garen erakundeak, 2015ean hasi ginen aktibaziorako gakoan inguruko azterketa desberdinak egiten. Azken azterketa, Euskaraldiaren bueltan egin dugu. Oro har, Topic-en egindako azterketan, lehendik egindako ikerketetan identifikatutako gakoak azaldu ditugu, eta gainera, Euskaraldiaren testuinguruan garrantzitsuak izan direla ere jakinarazi nahi izan dugu.

Bost gako nagusi azpimarratzen ditugu. Lehenik, herritarren aktibazioa lortzeko, tokian tokiko kezka edo behar sozial bati erantzun behar zaio; zenbait tokitan, behar sentitu bat izango da, baina beste eremu batzuetan beharrezkoa da kezka hori estimulatzea. Bestetik, talde eragilea edo ekimenaren lidergoa hartzen duen jende multzoa da beste gakoetako bat. Nolako osaketa eta nolako funtzionamendua duen aztertu beharra dago; talde horri, gainera, indar eta hedapen handiagoa lortzeko aukera ematen dio zenbat eta heterogeneoagoa, askotarikoagoa edota berriagoa (ordura arte elkarrekin jardun gabeko taldea) izatea. Baina, ez hori bakarrik. Kohesioan dutako taldea ere izan behar da, eta beraz, hainbat erronka daude, funtzionamenduari lotuak: bilerak nola egiten diren, erabakiak hartzeko prozesuak nolakoak diren, lan egiteko estilo, kode eta erritmo desberdinak nola gestionatzen diren...

«Belarriprest gehiagoren falta sumatu izana izan zen azterketa gauzatutako herrietan jasotako iritzi errepikatuen»
HELENE ARMENTIA

Baziren beste bi gako ere, Euskaraldiak bermatzen ez zituenak. Batetik, aktibaziorako proposamenen oinarri teoriko eta ideologiko landu bat egotea; hori ariketa sozialak berak ematen zuen, planteamendu sakon, zehatz eta argi batekin. Horrez gain, administrazioaren babesa zen beste gakoetako bat. Orain arte ez bezala, maila lokalean nahiz nazionalean babes hori eman da. Azken gakoa, berriz, talde motorren funtzionamenduari lotutakoa da. Ezinbestekoa da aktibaziorako martxan jartzen diren espazioak eta egiturak, irekiak eta horizontalak izatea. Herritarrak bere ekarpena garrantzitsua dela, eta bere tokia baduela sentiarazi behar du.

Nola irudikatzen duzue datorren urteko Euskaraldia? Berrikuntza modura, entitateen funtzionamenduan euskararen erabilera areagotzeko urrats zehatzak ematea bultzatuko duzue. Zergatik?

H.A. Joan den urteko ariketa ondo errotu bada, eta jarraipena ematen bazaio, rolen jokabidearen inguruko azalpenak ongi komunikatuta leudeke. Bestetik, berriz, entitateen figura dago. Entitateen barruan, lan mundua, merkataritza edota kirol elkarteak sartzen dira. Normalean, oraindik euskararen normalizaziotik kanpo dauden, edo behintzat hori lortzeko zailtasunak izan dituzten esparruak dira, eta horietara iristea nahi da. Beharbada, ia zko Euskaraldiaren bultzada aprobetxatuta, denon artean saiatuko gara hori gauzatzen.

Norbanakotik kolektibora jauzi egin nahi da, beraz?

H.A. Kolektibora baino gehiago, antolatutako entitateetara esango nuke. Entitate horietan, gainera, oso garrantzitsua izango da norbanakoaren figura. Hala ere, lan-talde edo harreman-taldeak kontuan izan beharko dira. Ulermenari garrantzia handiagoa eman behar zaio. Orain arte, ezagutzen eta erabilera aktiboan jarri da indarra, baina ulermenak berak ate asko irekiko litzuke, eta erabilera indartuko luke.

Nola animatuko zenituzkete herritarrak Euskaraldian parte hartzera?

Z.M. Ariketa eta esperimentu sozial oso interesgarria da, probatzeko modukoa. Eguneroko praktika sozialetan norberak zer egin dezakeen ikusi behar du, etxean, lanean, merkatariekin, lagunekin... euskaraz egitera animatuz eta praktikotasuna landuz. Kanpoan ez geratzeko deia lutzatuko nieke behintzat. Norberak bere alea ipintzeko aukera du, txikia ez den gauza batean, hizkuntza eta kultura bati segida ematen zaiolako. Gai hauek, maila handiagokoan kokatu izan ditugu, ikuspegi ideologiko eta politikoengatik, eta beharbada, norberak egunerokoan egin dezakeena bigarren maila batean utzi du. Erabileraren inguruko erabaki hartze askea izatea ezinbestekoa iruditzen zait. Euskaraldiak horretarako aukera ematen digu, kasu gehienetan, pentsatzen dugunaren eta egiten dugunaren arteko koherentzia handiago bat bilatzeko, ez bakarka, baizik eta kidesun sozial baten baitan. Gerora, norberak jakingo du zer nolako sentimenduak izan dituen ariketa horretan, baina seguruena pozarekin eta asebetetzearekin egingo du topo.



MASKARAK KENDUTA IKUSTEN DENA

Italiatik iritsitako 70 bat txotxongilo aurki daitezke Topic zentroko aldizkako erakusketan. ‘Giù la Maschera. Burattinien mundu miresgarria’ izena daraman erakusketa martxora arte zabalik egongo da. Istorio berezia duen «familia berezi bat» ezagutu nahi duenak, badaki nongo ateak jo behar dituen.

Irati Saizar Artola

Burattiniak, plazako esku txotxongiloak dira italiaraz. Urriaren hasieratik Tolosan hartu dute lur, Topic zentroan, zehazki. Txukun-txukun eta apainapain, aldizkako erakusketan jarri dituzte ikusgai. Martxoaren 1a arte zabalik izango da. Guztira, garai eta mota ezberdinetako 70 bat txotxongilo aurki daitezke. ‘Giù la Maschera’ Burattinien mundu miresgarria du izena erakusketak, eta izenaren lehen zatia italiarrez utzi nahi izan dute: kendu maskara edo jaitsi maskara esan nahi du.

Txotxongiloen «familia berezi bat» aurki daiteke museoan. Hala dio Maria San Sebastian Topic museoaren eta dokumentazio zentroaren arduradunak. «Italiari eskainitako erakusketa da», handik etorriak baitira ikusgai dauden pertsonaia guztiak. Italian, lurralde bakoitzak, eta, batzuetan, lurraldeetako hiri bakoitzak, pertsonaia bana du,

beraiena dena. «Txotxongilo bakoitza berea izango balitz bezala sentitzen du jendeak, eta maite du; gainera, pertsonaia horiek oso bizirik daude egun Italiako kaleetan zein antzokietan». Herrialde edota hiri bakoitzak, beraz, bere pertsonaia du, bere izena eta itxurarekin. Euskal Herriak ez du horrelakorik, momentuz, baina San Sebastianek bilatu du antzekotasunik sentipenen inguruan: «Hemengo erraldoiak izango balira bezala dira han txotxongiloak; umeen eta helduen gustuko zer bait izatera iritsi dira».

Italiako pertsonaia guztiek, ordea, jatorri berdina dute: Pulcinella pertsonaia, Napolikoa. Pertsonaia hori Europa mailako txotxongilo pertsonaia zaharrenetarikoa dela azaldu du San Sebastianek. Horri tiraka sortu dituzte gainerako herrialde eta hiriek euren pertsonaiak. Askok, «oso-oso zaharrak» dira: «1700 urte ingurukoak dira batzuk; beste batzuk, berriz, Italiaren ba-



Italiatik iritsi diren txotxongiloak Topic-eko museoan daude denentzat ikusgai. IRATI SAIZAR

teratzearen bueltan sortu ziren, aldarrikapen modura. Badira jaiotakoak edo XX. mendean jaiotakoak direnak ere».

Pertsonaia zaharrak izanagatik, ordea, txotxongiloak ez du zertan zaharra izan. Erabileraren ondorioz eta antzezpeneraren arabera, txotxongiloak «gastatu» egiten direla dio: «Antzezpen batean, adibidez, bata bestea makil batz jo dezake». Hori horrela, txotxongilolari bakoitzak pertsonai bakoitzaren bi edo hiru txotxongilo eduki ohi ditu, badaezpada.

Txotxongiloen antzerki mota hori, Burattinen antzerkia deritzona, «oso bizirik» dago Italian. San Sebastianek dioenez, «badaude pertsonaia batzuk Italiako literaturarenak direnak, eta konpainiek berreskuratu dituztenak; beste batzuk, aldiz, txotxongilolari familia bati lotuta daude eta familia hori desagertzean, pertsonaia ere desagertu egin zen, baina badira hil ostean konpainiek berpiztu dituzten txotxongiloak ere, eta egun arrakasta lortu dutenak».

Familiakoak, baina ezberdinak

Erakusketa 70 bat txotxongilok osatzen dute eta pertsonaia sailkatu dituzte. Beraz, lurraldeka ere banatuta ageri dira. Pertsonaia jakin bat irudikatzeko, txotxongilo

bat baino gehiago aurki daiteke. «Italiako bilduma ezberdinetatik etorritakoak dira, gehienak publikoak dira, baina badira pribatuak ere». Erdi-erdian dago Pulcinella pertsonaia, nagusiena, eta bera aurkezteko lau txotxongilo jarri dituzte.

Txotxongilo ezberdinek, teknika ezberdinak erakusten dituzte erakusketan bertan. Eskularruen teknikaz gain, haga eta hari txotxongiloak ere aurki daitezke. Berezi batzuk ere badituztela dio San Sebastianek: «Pare bat esku txotxongilo bereziak dira hankak dituztelako. Horiek, bi planotan erabil daitezke: bata, goian, gerriz gora agerian dutela, edota behean, hankak lurrean dituztela». Bestetik, esku txotxongiloen barnean, badira eskuineko zein ezkerreko eskuz erabiltzeko eginiko eskularruak ere.

Materialari dagokionez, mota ezberdinetakoak ageri dira: zaharrenak zeramikazkoak edo egurrezkoak dira, eta «nahiko pisu» dute: «Modernoak ez dira hain pisutsuak, beste material batzuez eginak daudelako».

Erakusketaren izenari jarraituz, aurpegian maskara dutenak eta maskararik ez dutenak ikus daitezke. Aurpegian maskara duten figurak pertsonaiarik zaharrenak dira, Napoleonen garaia baino lehenago sortuak. Napoleonek Italia okupatu zuenean, debekatu egin



IRATI SAIZAR

zuen jendeak kalean zein antzezpenetan maskarak eramatea. Txotxongiloek ere ezin omen zuten maskarak eraman.

Janzkera ere «pertsonaiaren nortasunaren isla» da. «Batzuetan, janzkeragatik jakin daiteke noiz jaio zen, zergatik jaio zen», dio museoaren arduradunak. Txotxongilo batzuek, esaterako, Italiako banderaren koloreak dituzte: berdea, gorria eta zuria. Pertsonaia horiek, Italiako batasunaren alde borrokatu zen garaian sortu ziren, Austria-Hungariako Inperiotik independentzia lortzeko unean. «Pertsonaia horiek, adibidez, horregatik dira hain maitatuak. Lurralde bakoitzak horregatik maitatzen du hainbeste bere pertsonaia». Gainera, pertsonaia askok, Italian egiten dituzten antzezpenetan, lurraldearen dialektoan hitz egiten dutela esan du San Sebastianek.

Txotxongiloen ibilbidea

Museo batera iristen den txotxongiloak bere ibilbide aktiboa amaitu duela pentsa daiteke. San Sebastianek, ordea, beti ez dela gertatzen azaldu du: «Gurean baditugu txo-

txongiloak, egun, aktibo daudenak, agian modernoena izango dira, adibidez, Pirù pertsonaiaren txotxongiloa: XX. mendean sortu zen, eta gu bezala lanean ari dira, antzestu egiten du oraindik. Beste batzuk, ordea, aurretik museoan zeudenak dira, geldirik daudenak».

Topic zentroaren irekieran, Idoia Otegi eta Migel Arretxe zuzendariek garrantzia handia eman zioten txotxongiloen bizitzari. «Topic-en museoan dauden txotxongiloak hona iritsi baino lehen bizitza bat izatea, antzestu du-

ten txotxongiloak izatea nahi zuten. Horregatik ditugu, horietako asko, erabiliak izandako markekin, kolpeak tarteak. Aurrez beste bizitza bat izan dute-lako».

Museoa ikusterako orduan, atzean dagoen historia eta istorioa jakitea garrantzitsutzat jo du museoaren arduradunak: «Jarri izan ditugu diseinu aldetik askoz bisualagoak diren erakusketak, baina hau ez da kasua. Testu gutxi

dago, baina garrantzitsua da irakurtzea, erakusketari etekina atera nahi bazaio behintzat».

Ikustera hurbildu nahi duenak, Topic-era joatea besterik ez du izango. Hala ere, bisita gidatuak egiten dituzte, aldez aurretik adostuz gero.

«Txotxongilo bakoitza berea izango balitz bezala sentitzen du jendeak, eta maite du»

MARIA SAN SEBASTIAN

2^{mó}
progresibo,
erreflexuen
aurkako lenteekin
229€

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren
ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza
batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com



GOZATU GURE EDUKIEZ NAHIERAN

ORAIN HAMAICA CHROMECAST BIDEZ ERE IKUSGAI

- 1 DESKARGATU HAMAICA APLIKAZIOA**
- 2 KONEKTATU SAKELEKOA ETA TELEBISTA WIFI SARERA**
- 3 ABIARAZI HAMAICA APLIKAZIOA**
- 4 AUKERATU NAHI DUZUN BIDEOA**
- 5 ETA KLIKATU BOTOIA**

www.hamaika.eus **Hamaika**

Hemen zure iragarkia joan daiteke

publi@ataria.eus

661 678 818



Hamaikagarren IKT Astea hastear

Informazio eta komunikazio teknologien astea urriaren 21ean hasi eta 25ean amaituko da, astelehenetik ostiralera

Hamaikagarrenez Lehiberri, Tolosaldea Garatzen, Spri eta Eusko Jaurlaritzaren ekimenez antolatuta da Tolosaldeko IKT Astea. Lehiberri zentroan, Villabonako KZ gunean eta Tolosako Oriaburu eraikinean eskainiko dira ikastaro eta tailerrak.

Ikastaro guztiak doanekoak badira ere, lekuak mugatuak direnez, aldeaz aurretik izena eman behar da www.lehiberri.eus webgunearen bitartez, lehiberri@tolosaldea.eus helbide elektronikoan edo 943 654501 telefono zenbakia erabilita. Honela, baiezapena jasotzen dutenek baino ez dute ikastaroetarako sarbidea lortuko.

Lehiberri zentroan

Goizeko ikastaroak Lehiberri zentroan eskainiko dira eta «ahal den neurrian

kurtsoetara norberak ordenagailu portatila eramatea» eskatzen dute Tolosaldea Garatzenetik.

Egunero, 09:00-13:00 bitarteko ordutegian, gai ezberdin bati helduko diote. Esaterako, astelehenean, *Hobetu produktibitatea IKTen bidez*; asteartean, *Defendatu zure enpresa online mehatxuengandik*; asteazkenean, *Bezero berriak lortzeko marketin digitala*; ostegunean, *Datuen erabilpena erabakiak hartzeko* eta ostiralean, *IKT bidezko bezeroen kudeaketa* izango dituzte hizpide.

Astelehenean beraz, laneko produktibitatea hobetzeko dauden tresna eta teknika nagusiak ezagutuko dira. Bigarren saioan, enpresarentzako sarean dauden mehatxu nagusiak eta hauek ekiditeko baliabideak ezagutuko ditu parte hartzaileak. Aste erdian, asteazkenean, marketin digitalaren oinarriak landuko dira jardunaldi bidez. Edukien estrategiatik abiatuta helburuen neurketetara bitartekoa aztertu-

ko da. Ostegunean, datuen bisualizazioa landuko da. Alegia, erabakiak hartzeko orduan duten garrantziaz jabetuz. Eta azkenik, ostiralean, IKTen bidez negozioan egin daitekeena ezagutzeko unea izango da.

Villabonako KZ Gunean

Eguerdietan, 14:15-16:15 bitarteko ordutegiarekin, ikastaroek Villabonako KZ Gunea hartuko dute. *Komertziorako marketin digitala* izenburupean, lau egunez, astelehenetik ostegunera bi orduko saioak izango dira. Tailerrak erabat praktikoak izateaz gainera, sare sozial eta posizionamenduari buruz hitz egingo da. Saiotera telefono mugikorra eramatea gomendatu dute Tolosaldea Garatzenetik, ikasitakoa unean bertan praktikan jartze aldera.

Tolosako Oriaburuko eraikinean

Goiz edota eguerdia beteak dutenek aitzakiarik ez dute izango ikastaroetan izena emateko. Izan ere, arratsaldeak ere ikastaroek bete dituzte IKT Asteako arduradunek. 18:00etan hasi eta 20:00etan bukatuko dira, astelehenetik ostegunera bitarteko tailerrak. Hauek guztiak Tolosako Oriaburuko eraikinean izango dute kokalekua.

Sare sozialak eta nerabeak eztabaiddan, nerabeek sare sozialak erabiltzeko moduarekin izan ditzaketen arazo nagusiak eta hauen irtenbideak aztertuko dituzte asteleheneko saioan.

Hurrengo egunean, asteartean, *Mugikorrarekin egin daitekeen guztia* tailerrean, telefono mugikorraren aplikazio nagusiak ezagutzera emango dira.

Asteazkeneko gaia berriz, erosketen begirakoa izango da: *Nola erosi online modu seguruan*. Modu seguruan eroszteko zein iruzur informatikoak ekiditeko gakoak plazaratuko dira bertan.

Eta azkenik, astea ixteko, lana bilatzeko tresna bezala aztertuko da internet: *Internet lana bilatu edo hobetzeko jardunaldia* medio. Tresna eta plataforma nagusiak ezagutuko ditu parte hartzaileak.

Informazio eta komunikazio teknologia herritar orengana gerturatzen saikera izango da berriro ere, IKT Astearen hamaikagarren edizioa.



AINTZANE ARTOLA

Dilista gorri krema

Normalean erabiltzen ditugunak dilista pardinak edo Gaztelakoak dira, baina gaurko kasuan dilista gorriak erabili ko ditugu. Koloreagatik deitzen zaie dilista gorriak. Dilista hauen berezitasuna da oso azkar egosten direla, ez dira beratzen egun batez utzi behar, ez dute azalik eta hortaz oso azkar egosten dira. Horregatik, sopak, pureak edo kremak egiteko oso errazak dira.

Azala ez dutenez digestioa egiteko garaian, gorputzak errazago asimilatzen ditu. Horregatik, afarietarako ere aproposak izan daitezke. Lekaleekin haizeak izaten dituenak dilista gorriekin ez ditu izango, izan ere haizeak sortzen duena azala baita.

AINTZANE ARTOLA
SUKALDARIA

Barazkiak prestatu

Kuiatxoa, azenario eta tipula zurituko ditugu eta ondoren zatitxoetan moztuko ditugu. Ez du zertan zatitxo txikiak izan behar. Izan ere, egosi ondoren, irabiagailuatik pasako dugu eta.

Behin prest ditugunean, lapiko batean oliba olio batoko dugu eta bertan zertxobait erregosiko ditugu. Behin gorritu samar daudenean, urez estaliko ditugu eta 10-15 minutuz egosten izango ditugu. Barazkiei dilistak botako diegu, gatz apurtxo bat bota eta nahi izanez gero jengibre hautsa ere bota dezakegu.

Beste 10-15 minutuz edukiko genituzke egosten. Barazkiak bigunak egongo dira eta gure dilistak.

Ondoren, irabiagailuatik pasako

dugu krema bat osatze aldera. Azalik ez daukatenez dilista hauek, ez dira zertan iragazi behar. Fin-fin geratuko zaigu krema.

Apaingarri gisa

Prest izango genuke zure dilista gorrien krema, eta apaingarri gisa sesamo hazi batzuk erabili ditzakegu; sesamo beltza edo tostaturak, edota baita *pikatoste* batzuk –ogia dadotxo batzuetan frijituta–.

OSAGAIAK

- 300 gr. dilista gorri.
- Kuiatxo bat.
- Tipula bat.
- Bi azenario.
- Oliba olio birgin goilarakada bat.
- Gatz.
- Ura.

Agenda

OSTIRALA URRIAK 18

AMASA-VILLABONA ELKARRETARATZEA

12:00. Kataluniako buruzagi independentisten aurkako epaia salatzeko elkarretaratzea, Errebote plazan.

IBARRA

KATALUNIARI ELKARTASUNA

20:00. Katalunia herriari elkartasuna azaltzeko Uzturre punta argitzea, Izaskunen hitzordua.

LEABURU-TXARAMA HITZALDIA

18:00. *Euskaraz bizi ahal gara!* Hizlariak: Jone Arrospide Alonso eta Jexux Murua Gorostidi. Balio anitzeko gelan.



TOLOSA MIKOLOGIKA

09:00. Tolosako ikastetxeetako DBH1-eko ikasleak perretxikoak biltzera irtengo dira. Arratsaldean Aranzadiko kideek Tolosako kultur etxean sailkatuko dituzte.

18:30. Txanpi-On Fest. Food truck-ak eta zuzeneko musika. Noa Voll Damm & The Hell Drinkers, eta Andoni Ollokiegi bakarlaria. Zumardi Txikin.

SAN ESTEBAN AUZOKO JAIAK

19:00. XVII. Patata tortila lehiaketa.

Ondoren. Luntxa.

22:00. Antzerkia. *Txoriburu, el rapero casero* (948 Espectaculos Teatrales).

KANTIK

20:15. III. Ahots Musika Zikloa. Hodeiertz abesbatzak antolatuta. Laskorain Ikastola (Tolosa). Abesti herrikoiak eskainiko dituzte, Sakramentinoetan.

ANTZERKIA

20:30. *Lo mejor de Yllana* antzezlan, Leidorren.

KONTZERTUAK

22:30. Iker Martinez de Zuazo eta Serge, Bonberenean.

23:00. Dos zuzenean. Bateria eta saxoa. Sergio Rodríguez Vitta (Yeyo) eta Irijoa. Nu jazz kontzertua 3 tabernan.

ZIZURKIL ASANBLADA

18:00. Ongietorri asanblada irekia, Kaxildan.

LARUNBATA URRIAK 19

ALEGIA

TXINTXARRIEGUNA

19:45. Txintxarri Txiki, Txintxarri eta Uztaritzeko Lapurtarrak abesbatzen kontzertua, elizan.

AMASA-VILLABONA HAUR ANTZERKIA

18:00. *Trash!* Zero en conducta konpainia (Katalunia). 30 minutuko bi emanaldi. Sarreraren prezioa: 4 euro. Aldez aurretik: Basajaun, Amasa kafetegia eta Gureako leihatilan. Emanaldiaren egunean bertan, Aljibean.

ANOETA HITZALDIA

10:30. *Euskaraz bizi ahal gara!* Hizlariak: Nora Iñurrita Ibarbia eta Imanol Artola Arretxe. Udaletxean.

IBARRA

AZKU EGUNA

11:00. Txupinazoa Azkueko errotondan. Auzoko musikariek eta buruhandiek kalejira Azkueko plazarantz.

Ondoren. Gaztezulorekin batera haur jolas kooperatiboak.

11:30. Toka eta pintxo potea.

12:30. Aperitiff musikatua: DJ Eskatzia Libre.

14:00. Bazkaria.

16:00. Bingoa.

17:30. Hodei magoarekin Tutti magia ikuskizuna.

18:30. Gaztezuloren eskutik: mahai jokoak eta txapa tailerra.

19:30. Kontzertuak. 3rok (doinu kubatarak).

20:30. Zezen suzkoa.

IBARRA KIROL ELKARTEAREN URTEURRENA

10:00. Diana Giroarte taldearen eskutik.

11:00. Hamaiketako (Karlitz tabernan).

Ondoren. Kalejira potea.

14:00. Urdaiazpikoa moztea.

14:30. Bazkaria, trikitilariak alaituta.

GENERAZIO BERRIEN ONGI ETORRIA

16:00. Frontenis txapelketa. Saniko frontoian.

19:00. Patata tortilla txapelketa. Gaztetxean.

Ondoren. Afaria. Gaztetxean.

TOLOSA

MIKOLOGIKA

10:00. Marka saiakera Trianguloan: Baletz munduan inoiz prestatu den saltsan egindako txanpinoi kazola handiena lortu!

12:00. Mikologika azoka, Trianguloan. Tolosa eta Goierrialdeko jatetxe desberdinetako sukaldariak pintxoak prestatuko dituzte, osagai nagusiak onddoak eta perretxikoak izango dira. Gainera, Tolosaldeko ikasleek Aranzadi zientzia elkarteak kideen laguntzarekin bezperan bildu eta sailkatutako perretxikoekin sortutako erakusketa.

20:30. X. urteurrena ospatzeko Mikologika amaierako afari sorpresa. Menua, perretxiko eta onddoetan oinarrituta egongo da, Casino elkartearen.

SAN ESTEBAN AUZOKO JAIAK

11:00-18:30. II. 2x2 Boley txapelketa ferialekuan. Toloboley.

16:30. Haur joalsak.

18:00. Buruhandiak eta entzierroa zezen txikiek (Moyua abeltzaintza).

18:30. Txokolate jatea, Batukada Feministak girotuta.

22:30. Kontzertua. Basati eta Euphoric.

BISITA GIDATUA

11:30. Txotxongilo femeninoak. Bularreko Minbiziaren Eguna dela eta bisita gidatu berezia Topic-en.

AZOKA

16:30. Ana Yurd elkartearen antolatuta, bigarren eskuko eta truke azoka, Tolosako Berdura plazan.

KONTZERTUA

19:30. Nathan vs. SAX rap saioa.3 tabernan.

22:30. Rodeo eta Ezpalak taldeen kontzertua. Sarrera: 8 euro, Bonberenean.

IGANDEA URRIAK 20

ALEGIA

MENDIIRTEERA

09:00. Murumendira mendi irteera, Alegiako mendi asanbladak antolatuta. 09:00etan herriko Tontokaletik abiatuko dira kotxeetan, denak elkarrekin abiatzeko.

BEDAIO

ERRETIRODUNENEGUNA

10:00. Bizkaratetik kalejiran Astigarragako txistulari taldea.

11:00. Meza nagusia, txistulariak bertan direla.

Ondoren. Bedaioko gazteen pilota partida finala eta bazkaria Abaetxe jatetxean.



IBARRA

IBARRA KIROL ELKARTEAREN URTEURRENA

10:00–11:30. Bola eta toka txapelketen izen ematea.

10:30. Txapelketen hasiera.

11:30. Meza nagusia hildako bazkideen omenez.

TOLOSA

MENDIIRTEERA

07:30. Alpino Uzturrek antolatuta mendi irteera Arantza–Ekaitza–Sunbillara. Ekaintza (1.046 m.) eta Mendieder (1.071 m.) mendiak igoko dira. Txangoaren luzera: 19 km. Iraupena: 6 ordu. Autobusa: 13 euro (bazkideak) eta ez bazkideak 15 euro.

SAN ESTEBAN AUZOKO FESTAK

09:00. Diana herriko txistulariekin.

10:00. Trikitilariak auzoko baserrietan.

11:00–12:00. 2x2 Boley txapelketaren

finalaurreko eta finala iango dira Ferialekuan.

11:00. Meza auzoko hildakoen alde, San Frantzisko elizan.

11:00. Radio Control–eko kotxeen erakustaldia Ttorreko aparkalekuan.

12:00. Auzoko txarangarekinkalejira.

14:00. Auzoko babarrun jatea.

Ondoren, dantzaldia eta karaokea Joxe Jabier Mendizabalen eskutik. Atsedenean Toka Txapelketa. Festari amaiera emateko gaztaina jatea.

KONTZERTUA

18:00–20:00. Orkestrina Band Jazpanarekin dantzaldia, Alondegia tabernan.

18:30. Suyai taldea Zaragozatik, 3 tabernan.

ZIZURKIL

HITZALDIA

18:00. Klase borrokaren bilakaera *Euskal Herrian*. Iñaki Gil de San Vicente. Kaxilda Gaztetxean.

ASTELEHENA URRIAK 21

AMEZKETA

HITZALDIA

19:00. Euskaraz bizi ahal gara! Mikel Artola Izagirre eta Imanol Artola. Kultur etxean.

BERROBI

HITZALDIA

19:00. Euskaraz bizi ahal gara! Kike Amonarriz eta Ane Izagirre. Etxolan.

TOLOSA

ODOLEATEA

18:00. Txanda hartzeko zenbakiak kultur

etxean bertan izango dira, 17:30etik aurrera.

KONTZERTUA

18:00. Ecstatic Vision (Philadelphia) taldearen kontzertua. Bonberenean.

ZINEMALDIA

19:00. Desgaitasunari Buruzko II. Zinemaldia. Film laburren proiektzioa: Capitan Kinesis eta Matilde.

Jarrian. Buru Bihotzez elkarteko Maria Erdozarekin eta Gaiñditzeneke Julian Rodriguezekin (Bere amak Alzheimerra du eta bere esperientzia kontatuko du). Zeinu hizkuntzako interpretea egongo da.

ZINEMA

‘AD ASTRA’

Larunbata (19:30) eta astelehena (20:30).

Leidor aretoa, Tolosa.

‘DOWNTON ABBEY’

Larunbata (19:30), igandea (19:30) eta astelehena (21:00)

Gurea antzokia, Amasa–Villabona.

‘DIECISIETE’

Larunbata (22:00), eta igandea (19:30 eta 22:00)

Leidor aretoa, Tolosa.

‘EL REY LEON’

Igandea (17:00)

Leidor aretoa, Tolosa.

‘MISION KATMANDU’

Igandea (17:00).

Gurea antzokia, Amasa–Villabona.



Hiru asteko
martxa



OIHANA IGUARAN
BARANDIARAN

*Pentsiodun ugari
jarri dira ketan:
hiru asteko martxa
Madrilgo mapetan
arrakalak zabaldu
asmotan katetan
oinutsik jarri dira
babak hankapetan
goi-karguei eskatuz
kongresu atetan
behingoz jar daitezela
euren zapatetan*



Doinua

Kantuz sortunaiz eta

Modapean

Bueltatu dira ohitura txarrak. Lo hartzeko zailtasunak eta sabaiari begira igarotako orduen pareko minutu infinituak. Lehen hartutako kamamilak komunera joateko beharra izan du efektu bakarra. Eta ardiak kontatzeaz nazkatu naiz, oraindik eta esnago sentitzen naiz eta. Baina gaur ez da lo ezin harturik nagoela igarotzen dudana lehen gaua. Badira hilabete batzuk horrela nabilena. Badira hilabete batzuk borrokarekin bat egin nuena.

Bai, badira hilabete batzuk nire etorkizunaren alde egitea erabaki nuela eta planetari laguntzeak nire arreta guztia bereganatu zuela. Baina zenbat eta gehiago murgildu, zenbat eta gehiago saiatu

ohitura txarrak aldatzen eta aukeraketak ezagueraz egiten, orduan eta zailtasun gehiago aurkitzen ditut. Eta horietako bat moda da.

Beti esan izan da gure gizartea kontsumista dela: kontsumista eta kontsumo errazaren aldekoa. Multinazional baten dendan sartu eta bertako hamar euroko niki bat erostea baino gauza errazagorik ez baitago.

Fast fashion deitzen zaio, modaren McDonald's-a ZARA kontsideratuz. Baina janari lasterraren ondorioak denontzako ezagunak diren bezala, kon-

tsumo honen ondorioak orain arte ezezagunak izan dira guretzako; besteak beste, 14 orduz lan egitearen truke soldata ziztrin bat eskuratzen duten umeei esker lortzen direla hainbeste gustatzen zaizkigun prezio baxuak, eta erabili behar dituzten materialek planetan dutela eragina. Plastikoen inbasioak ez duelako moda alde batera utzi.

700.000. Hori da arropa-garbigailuak askatzen duen mikroplastiko kopurua garbiketa bakoitzeko. Gure arropak ere plastikoa duelako osagai, poliester edo akriliko, bietako edozein izan daiteke. Baina azken batean, plastiko. Eta horrela, poliki-poliki, zuk erositako niki horretatik itsasora joango da, iku-

sezinak diren milaka zatitan.

Eta horrela, poliki-poliki, jabetzen naiz ni, gure planetaren aldeko borroka aurrera eramateko oztopoek zer nolako tamaina duten. Baina aurrera jarraitu beharra dago, kontsumitzeko jarrera ezberdin baten bila. McDonald's-aren aurrean formula berdina duten, baina osasuntsuak diren jate txekak eratu ziren bezala. Ohe ondoko mahaitxoko erlojuaren orratzak, biharko nire lo-gurearen adierazle direnak, gelditu gabe aurrera doazen bezala.



JONE ALBERDI
IKASLEA

**Beti esan izan da gure
gizartea kontsumista
dela: kontsumista eta
kontsumo errazaren
aldekoa. Multinazional
baten dendan
sartu eta bertako
hamar euroko niki bat
erostea baino gauza
errazagorik ez baitago**

KOMIKIA JOSEBA ANTJUSTEGIETXARTE



Iñaki eta Patxi Epelde anaiak zein Jose Luis Longaron

Iñakik duela urte batzuk eta aurtan Jose Luisek eta Patxik ospa egin digute. Min biziak eraman ote ditu? Edo minbiziak? Edo biak? Nik ezin jakin.

Beren afizioan oso onak izateaz gain eta ziur asko, saltzaile txarrak, pertsona onak zirela nabarmenduko nuke. Koadro eder askoak egiteaz gain edonori laguntzeko prest zeudenak beren dohain koloretsuekin behar zen eginbeharretan. «Osasuna eta askatasuna» azpimarratzen zuen Iñakik maiz bere koadroetan, arrazoi horretan ere.

Egunkariako lehen zuzendaria Pello Zubiria atxilotu eta torturatu ondoren afaria egin genuen bere neska-lagun Maloresekin udaletako euskara teknikariok. Iñaki Epelderen marrazkia oparitu genion, horretarako ere debalde eman ziguna. Jakin dezala Iñakiren familiak Maloresek eta Pellok Zaldibiko familiaren etxeko Putzuberri sailean zuhaitza landatu zutela eta pago horri Iñaki Epelde Mundiñano jarri ziotela izena, bere ohorez eta omenez.

Jose Luis ezagutzen nuen eta hitz aspertu ederrak egin izandakoak gara honetaz eta hartaz. Patxi ezagutzen

nuen baina berak ni ez. Estimatzon nuen bere pintura baina horretaz gain duela urte dezente «mundua aldatu nahi zuen» jendearekin ikusten nuelako nion estimua. Ostiral gauetan Mikel Ariztimuño, Koldo Etxabe, Esola eta abarrekin ikusten nuen afaltzen han edo hemen eta gero, tradiziozko

errondan. Ez zeuden konforme mundu honek zeraman martxarekin eta denborak arrazoi eman die, ez bada sapiens-a espabilatzen oso oker ibiliko baita mundu honetan eta oso bero. Bide batez, gutxiengo gutxiengo baten ikaragarritzako dirutzak izango ditu eta gaintontzekoak ahal dutena

egin beharko dutela aurreikus daiteke. Arrazoi zuten aldatu behar zela ziotenean eta saiatu egin ziren. Agur eta ohore horregatik ere!

Jose Luis Longaron eta Patxi Epelderen omenez ere sartuko ditugu zuhaitz bana Iñakirenaren aldamenean, hagina Jose Luisen omenez eta mahaspila Patxiren ohorez. Gure kontu Jose Luis eta Patxi!

Tolosako azken urteotako marrazki kontuetan erreferentzia handiak, hiru pertsona jator, jakintsu eta emanzaleak. Ondo gogoan ditut, bai horixe!



**IÑAKI AZALDEGI
ARRIETA**
OINEZKOA

Tolosako azken urteotako marrazki kontuetan erreferentzia handiak, hiru pertsona jator, jakintsu eta emanzaleak. Ondo gogoan ditut, bai horixe!

EGURALDIA

GAUR

Gaurkoan eguraldi motel samarra izango dugu. Egun osoan zehar zerua hodeitsu mantenduko zaigu, ia estalirik eta tarteka-tarteka euri pixka bat egingo du. Ez dira litro asko izango baina eguraldi amorragarria izango

dugu eta tenperaturek behera egingo dutenez giro freskoa izango dugu. 20 gradutara ezin iritsi ibiliko dira maximoak.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

BIHAR

Euriak indarra hartuko du batez ere egunaren bi-

garren zatian. Eguerdia bitarte ez du euri asko botako baina arratsaldean zaparradek indarra hartuko dute eta ugariagoak izango dira. Egunaren amaieran zaparrada mardul samarrak botako ditu. Haizeak mendebal, ipar-mendebaldeko ukitua hartuko du eta tenperaturek behera egingo dute 16-18 gradutan errendituz.

ETZI

Eguraldi euritsuak jarraipena izango du. Zaparradak sarri botako ditu eta mardul samarrak izango dira. Zeruan tarteka ostarteak zabalduko dira baina mendebaldeko haizearekin jarraituko dugunez, udazkeneko eguraldi euritsua izango dugu igandean ere, termometroak 16-18 gradu pasa ezinik ibiliko dira.

ASTELEHENA

Badirudi eguraldi lasaia izango dugula. Ez da garbia izango baina euri dezente gutxiago botako du asteburarekin alderatuz. Tenperaturek udazken sasoikoak izaten jarraituko dute. Astearte eta asteazkenean euri asko botako du.

OSTIRALA
18



IGANDEA
20



LARUNBATA
19



ASTELEHENA
21



IRAGARKI LABURRAK

ALOKAGAI

Baserria. Elduainen: etxebizitza, ustiategia edo biok. Interesa dutenek, deitu telefono zenbaki honetara: 635 757381 (Inaki).

LANESKAINITZA

Zaintza. Tolosaldean, pertsona bat behar dugu pertsona ezindu bat zaintzeko, lan horretan esperientzia duena. Lana arratsaldean izango litzateke, 15:30-19:30 artean. Kotxea izatea derrigorrezkoa da. Interesa dutenek deitu: 685 759334.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK

URRIAK 18, OSTIRALA

IBARRA

Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.

URRIAK 19, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Isidoro Santamaria Marijuan Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.

URRIAK 20, IGANDEA

IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset. Euskal Herria, 24. Telefonoa: 943 67 32 74.

URRIAK 21, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Ignacio Olarreaga Aranburu. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • LURDES Azpiroz Galarza
Amarotz auzunea, 91.
Tel.: 943 67 51 18.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Pasahitza Eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearen eskutik, agenda, solasaldi politikoa. Galtzaundi euskara elkartearen Hitzez Hitz atala, Mari Jose Aranguren ekonomilaria eta Amalurra ekologiar buruzko saioa.

12:00. Entzuteko jaiok Musika tarte.

16:00. Zebrabidea Arrosa sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Kantazgora Tolosaldeko musikariaren proposamenekin osatutako musika saioa.

LARUNBATA

10:00. Trikiti musika.

18:00. Entzuteko jaiok Musika tarte.

IGANDEA

10:00. Goizeko saioen onena.

14:00. Hari Naizela Bertsolaritzari buruzko saioa, Imanol Artola Felix-ekin.

16:00. Entzuteko jaiok Musika tarte.

18:00. Kantazgora Tolosaldeko musikariaren proposamenekin osatutako musika saioa.

20:00. Entzuteko jaiok Musika tarte.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza Eguneko berriak, agenda, asteburuari begirada, Postalak bidaiarien tarte, Patxadaz eginiko elkarriketak.

12:00. Entzuteko jaiok Musika tarte.

16:00. Zebrabidea Arrosa sareko magazina.

18:00. Goizeko saioen onena.

20:00. Mailu ta akuilu Musika saioa.

107.6 fm
www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosalde.

12:30. Elkarriketap (Bittor Arginzoniz).

17:30. Gaurkoan Tolosalde.

21:30. Gaurkoan Tolosalde.

22:00. Amaia DJ.

22:30. Hiri baratzea.

23:30. Gaurkoan Tolosalde.

TOLOSA

ONENETAN ONENA ERDI-PREZIOAREN ERDI-PREZIOAN

Eta orain...

LEHENENGO
HILA DOAN!

19'9€
/mes



euskaltel

Zu zeu zara zure influencer bakarra.



Audi A4 Avant berria hilean 290 eurotik *

Bi pertsona mota daude: zu eta gainontzekoak. Pertsonalitate propioa duzulako eta ez zaudelako azken joeren menpe. Zure sena bakarrik jarraitzen duzulako. Eta senak esaten dizu Audi A4 Avant ez dela beste auto bat. Diseinu elegantea du eta kirol jenio bizia, eta horren adierazle dira LED motako aurreko argiak, MMI Navigation plus sistema edo ECO marka duten Mild hybrid motor aurrerratuak. Aproposak dira pauso bat aurrera emateko eta bide propioa irekitzeko, zu bezala, inor eta ezer jarraitu gabe.



Autowag Tolosa

Usabal poligonoa, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi A4 Avant Advanced 30 TDI 100 Kw (136 CV) S tronic. CO2 isurketak (g/km): 137-151 (NEDC: 104-113). Kontsumoa (l/100 km): 5,2-5,8

► Audi A4 Avant Advanced 30 TDI 100 KW (136 CV) S tronic-ra egokitutako Audi Financial Services-en eskaintza, 36 hilabetera eta guztira 45.000 kilometrotarako Renting kontratuarekin. G. 645 euroko sarrera bat ordaindu behar da, Volkswagen Renting SA-ren bidez. Kuotak eta sarrerak ez dute BEZik. Gorpil zorroen aldaketarik gabe. Eskaintzak Red Oficial Audi-ren mantenu eta higitze zerbitzu guztiak barnebiltzen ditu, baita garantia (matxuren konponketa), frankiziarik gabeko arrisku oroko aseguruia eta hitzartutako epealdiko bidaiari asistentzia. Beste bertsioetarako edota ekipamendurako Audi kontzesionarioan galdetu. Eskaintzaren azken eguna 2019ko urriaren 31. Audi Financial Services marka Volkswagen Renting SA-k merkaturatzen du. Irudiko autoa ez da eskaintzako bera.